EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

LURRALDE, ETXEBIZITZA ETA HIRI AGENDA SAILA
*Gipuzkoako Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritza*

DEPARTAMENTO TERRITORIAL DE VIVIENDA Y AGENDA URBANA
*Delegación Territorial de Vivienda de Gipuzkoa*

# EBAZPENA, 2026KO URTARRILAREN 16KOA, GIPUZKOAKO ETXEBIZITZAKO LURRALDE ORDEZKARIARENA, HONEN BITARTEZ, IRUNEKO UDALERRIKO LARZABALEN, 43 ZUZKIDURA BIZITOKI ESLEITZEKO PROZEDURAN ONARTUAK ETA BAZTERTUAK IZAN DIRENEN ZERRENDAK ARGITARATZEN DIRA

## AURREKARIAK

**1.-** Iruneko udalerriko Larzabalen 43 zuzkidura-bizitoki esleitzeko prozedura Etxebizitza eta Hiri Agenda Saileko sailburuaren 2025eko irailaren 2ko Aginduaren bitartez hasi zen.

**2.-** Agindu horren zazpigarren ebazpen-zatian, 2025eko irailaren 16ªaeta urriaren 6a bitarteko epea ezartzen da, indarrean dagoen araudian aurreikusitako baldintzak betetzen dituzten eta esleipen-prozeduran parte hartzeko interesa duten pertsonek dagokion eskabidea aurkez dezaten.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

**1.-** Etxebizitzako Lurralde ordezkaria da Ebazpen hau emateko organo eskuduna Lurralde Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 3ko 411/2024 Dekretuko 15. artikuluaren arabera.

**2.-** Ebazpen honen bigarren aurrekarian aipatzen den epea amaitu ondoren, Etxebide Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan izena emanda dauden pertsonen egoera (esleipen-prozeduran) aztertu da martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuan –babes publikoko etxebizitzen araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzkoan– eta Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko urriaren 15ko Aginduan –etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoan– aurreikusitakoari jarraiki eta 2010eko martxoaren

# RESOLUCION DE 16 DE ENERO DE 2026 DEL DELEGADO TERRITORIAL DE VIVIENDA EN GIPUZKOA, POR LA QUE SE PUBLICAN LAS LISTAS DE ADMITIDOS/AS Y EXCLUIDOS/AS EN EL PROCEDIMIENTO DE ADJUDICACION DE 43 ALOJAMIENTOS DOTACIONALES EN EL MUNICIPIO DE IRUN, LARZABAL

## ANTECEDENTES

**1.-** Por Orden de 2 de septiembre de 2025, del Consejero de Vivienda y Agenda urbana se inicia el procedimiento de adjudicación de 43 alojamientos dotacionales en Irún ,en Larzabal.

**2.-** En el resuelvo séptimo de la citada Orden se fija un plazo entre el 16 de septiembre y el 6 de octubre para que las personas que cumplan los requisitos previstos en la normativa vigente y estén interesadas en participar en el procedimiento de adjudicación presenten la solicitud correspondiente.

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

**1.-** El Delegado Territorial de Vivienda es el órgano competente para dictar la presente Resolución en virtud de lo previsto en el artículo 15 del Decreto 411/2024, de 3 de diciembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Vivienda y Agenda Urbana.

**2.-** Finalizado el plazo al que se hace referencia en el antecedente segundo de esta Resolución, las solicitudes realizadas por las personas o unidades convivenciales inscritas en el Registro de Solicitantes de Vivienda Etxebide se han examinado de conformidad con lo previsto en el Decreto 39/2008, de 4 de marzo, sobre régimen jurídico de las viviendas de protección pública y medidas financieras en materia de vivienda y suelo, y en la Orden de 15 de octubre de 2012 del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes del registro de solicitantes de vivienda y de los procedimientos para la adjudicación de Viviendas de Protección Oficial

Andía, 13 - 6º – 20004 DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN Tef. 012 – Fax 943 022 811

22an Irungo Udalak eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak sinatutako hitzarmenean adierazitakoa errespetatzeari kalterik egin gabe 2010eko martxoaren 22an Irungo Udalak eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak sinatutako hitzarmenean ezarritako lehentasuna errespetatzeko.

y Alojamientos Dotacionales de Régimen Autonómico y sin perjuicio lo recogido en la Orden de 2 de septiembre de 2025 del Consejero de Vivienda y Agenda Urbana por la que se da inicio a este procedimiento y de respetar la prioridad establecida en el Convenio firmado el 22 de marzo de 2010 entre el Ayuntamiento de Irún y el Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes del Gobierno Vasco.

Horren ondorioz, honako hau

En consecuencia,

**EBAZTEN DUT:**

1.- Iruneko udalerriko Larzabalen 43 zuzkidura-bizitoki esleitzeko prozeduran onartuak eta baztertuak izan direnen zerrendak argitaratzea; zerrenda horiek ebazpen honen eranskinetan jasotzen dira hurrenez hurren.

2.- Prozeduran onartuak eta baztertuak izan direnen zerrendak hilabetez jarriko dira jendaurrean erakusgai Eusko Jaurlaritzaren Zuzenean Herritarren Arretarako Zerbitzuaren iragarki taulan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoan.

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen. Izan ere, Etxebizitzako sailburuordeari aurkeztu ahal izango zaio Ebazpenaren aurkako gora jotzeko errekurtsoa, argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita hilabeteko epean.

**RESUELVO:**

1.- Publicar las listas de admitidos/as y excluidos/as en el procedimiento de adjudicación de 43 alojamientos dotacionales en Irun, en Larzabal, que se reflejan en los Anexos de esta resolución, respectivamente.

2.- Las listas de admitidos/as y excluidos/as se expondrán durante un mes en el tablón de anuncios del Servicio de Atención Ciudadana del Gobierno Vasco-Zuzenean y en el tablón electrónico de anuncios de la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La presente Resolución no agota la vía administrativa, pudiendo interponerse contra la misma Recurso de Alzada ante el Viceconsejero de Vivienda en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de su publicación.

GIPUZKOAKO LURRALDE ORDEZKARIA,
EL DELEGADO TERRITORIAL DE GIPUZKOA

Izpta./Fdo.: Alfonso Sanz Araujo